

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

42

AGINDUA, 2020ko abenduaren 22koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bidez destinoa ematen zaie martxoaren 21eko JUS/403/2019 Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan deitutako Justizia Administrazio Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaiei (barne-sustapeneko txanda).

Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionario berriak hartzeari, funtzionario horien lanpostuak hornitzeari eta lanbide sustapenari buruzko araudia onartzen du. Dekretu horrek 28. eta 29. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritik, ebatzi dut I. eranskinean zehazten diren organo judizial eta fiskaletako destinoak adjudikatzea 2020ko abenduaren 22ko aginduaren bidez Justizia Administrazio Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko karrerako funtzionario izendatutako langileei (barne-sustapeneko txanda). Kontuan eduki behar dira honako inguruabar hauek:

Lehenengoa.– Agindu honen bidez destinoa ematen zaien Justizia Administrazio Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko funtzionarioak beren karguaz jabetu behar dira Justizia Administrazio zuzendariaren aurrean (edo hark eskuordetzen duen funtzionarioaren aurrean), Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako EATEan (destinoa dagoen lurraldearen arabera), agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik (edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik, agindu hau bi aldizkari horietan egun berean argitaratzen ez bada) hogeitun egun baliodun igaro baino lehen, aurrean aipatutako errege dekretuaren 29. artikuluan ezartzen denarekin eta 39/2015 Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena) 30. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Bigarrena.– Agindu honen bidez destinoa ematen zaion funtzionario batek hautatzen badu Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan lanean jarraitzea, ez du edukiko adjudikatutako lanpostuaz jabetzen joan beharrik: aski izango da lehen apartatuan lanpostuaz jabetzeko ezarritako epealdiaren barruan hautapenaren berri ematea Justizia Administrazio Zuzendari-tzari, borondatezko eszedentziaren adierazpena egiteko, 6/1985 Lege organikoak (6/1985 Lege organikoa, uztailaren 1ekoa, botere judizialarena) 506.d) artikuluan arautzen duenaren arabera. Funtzionarioa borondatezko eszedentzian dagoela adierazten duen ebazpenaren kopia bidaliko da Justizia Administrazioaren zerbitzuko giza baliabideen Zuzendariordetza Nagusiaren Erregistro Nagusira.

Txanda askean hautaprobak gainditu dituztenei destinoa adjudikatzeko prozedura gehiegi ez luzatzeko, orain ari den kidegoan gelditzea hautatzen duten barne-sustapeneko txandako hautagaiek horren berri eman beharko dute; horretarako, agindu honen II. eranskineko formularioa bete beharko dute eta admonjusticia@mjusticia.es posta elektronikoen helbidera izendapena eta destinoaren adjudikazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun baliodun igaro baino lehen.

Hirugarrena.– Funtzionario batek hautatzen badu Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzea eta ez badu nahi lanpostuaz jabetu arte ezinbestean igaroko den aldi hutsunea gertatzea Justizia Administrazioako zerbitzu-lanetan, baimen ordaindua eskatu ahal izango dio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari: egun batekoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko oraingo destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan badago, edo bi egunekoa, erkidego horretan ez badago (salbuespena: Kanarietatik, Balearretatik, Ceutatik edo Melillatik joan behar direnek hiru eguneko baimena eskatu ahal izango dute, gehienez, kargu berriaz jabetzeko). Baimen-egunak egun balioduntzat joko dira. Destino berriko lanpostuaz baimen-egunetan jabetu beharko da.

Beste lurralde kudeatzailletza batetik edo bitarteko pertsonalak eskualdatuta dauzkan autonomia-erkidego batetik datozen funtzionarioek organo horietara bidali beharko dute dokumentazio hori. Horrela, organoak ofizioz ezarriko ditu funtzionarioari borondatezko eszedentzia Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan eta kargu-uzte automatikoa, eta horien data Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko lanpostuaz jabetzen den egunekoa bera izango da, etenik gerta ez dadin beraren hartzekoen ordainketan.

Nolanahi ere, karguaz jabetzeko eginbideak egin ondoren, kasuan kasuko EATen arduradunak karguaz jabetzeko dokumentuaren bi ale bidaliko ditu Justizia Administrazioako Zuzendaritzara, hark gero behar diren aldaketak egin ditzan nominan. Zuzendaritzak ale horietako bat Justizia Administrazioaren zerbitzuko giza baliabideen Zuzendariordetza Nagusiaren Erregistro Nagusira bidaliko du, beste bat interesdunari bidaliko dio eta laugarrena EATean gordeko da.

Laugarrena.– Funtzionario batek hautatzen badu Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko lanpostu berriari gelditzea, hartaz jabetu ondoren eskubidea edukiko du baimen ordaindua erabiltzeko, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen den bezala. Baimenetik agindu honen hirugarren apartatuan aipatzen diren egunak kenduko dira.

Bosgarrena.– Hautaprobak gainditu dituztenei adjudikatutako lanpostuetan ari diren bitarteko funtzionarioek lanpostua utziko dute titularra hartaz jabetzen den egun berean.

Seigarrena.– Agindu honen bidez destinoa ematen zaien Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko funtzionarioek ezin izango dute parte hartu lekualdatze-lehiaketetan agindu hau eman denetik bi urte igaro arte, nahiz eta destinoa nahitaez ezarri beren lehentasunen kalifikazio-hurrenkeraren arabera. Bi urteko aldia zenbatzeko, 6/1985 Lege organikoak (6/1985 Lege organikoa, uztailaren 1ekoa, botere judizialarena) 529.3 artikulua bigarren paragrafoan ezartzen dena aplikatuko da.

Zazpigarrena.– Azaroaren 17ko JUS/1113/2020 Aginduaren bidez (Estatuko Aldizkari Ofiziala, azaroaren 27koa) hautagaiei eskaintzen zaizkien plazetatik Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan barne-sustapenaren txandatik sartu berri direnei adjudikatzen ez zaizkienak hutsik geldituko dira eta kidego horretan txanda asketik sartzen direnentzat gordeko dira.

Gainera, orain dauden kidegoan gelditzea erabakitzen duten barne-sustapeneko txandako hautagaiek betetzen ez dituzten plazak aurreko paragrafoan aipatzen diren plazei gehituko zaizkie.

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hilabeteko epean Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legearen) 123. eta 124. artikuluetan

2021eko urtarrilaren 8a, ostirala

ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen (uztailaren 13ko 29/98 Legearen) 9. artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 22a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2021eko urtarrilaren 8a, ostirala

I. ERANSKINA

Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa (Barne-sustapena)

Hurrenkera-zenbakia	NAN	Abizenak eta izena	Esleitutako destinoa	Herria	Probintzia	Lanpostua	Dotazioa
1	***3441**	Zamora San Pedro, Javier	Arabako Probintzia Fiskaltza	Vitoria-Gasteiz	Araba	480015	2
2	***0599**	Aguirre Cabana, Iratxe	Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra – Erregistro eta Banaketa	Barakaldo	Bizkaia	480030	1
3	***1514**	Soreasu Villalabeitia, Maite	Lehen Auziariako 7 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
4	***7095**	Erlaitz Urriategui, Nerea	Zigor-arloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala – Zigor arloko taldea	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	480046	19
5	***9651**	Bujanda Eguino, José Rubén	Zigor-arloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala – Indarkeria-taldea	Vitoria-Gasteiz	Araba	480021	12
6	***8578**	Romero Ruiz, Lorena	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala – B Atala (Zigor-arloa)	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	480054	18
7	***3576**	Miguens Vila, Xoan Luis	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Azpeitia	Gipuzkoa	480001	5
8	***3928**	López Sánchez, Concepción	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala – Zibil Atala	Barakaldo	Bizkaia	480035	6
9	***4808**	Suárez Pérez, Gloria	Zigor Arloko 7 zk.ko Epaitegia (Beteazpenak)	Bilbao	Bizkaia		
10	***8598**	Menéndez Aranda, Omar	Lehen Auziariako 4 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
11	***7572**	Álvarez Arribas, Alicia	Lehen Auziariako 15 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
12	***8292**	Varga Mediavilla, Javier	Lan Arloko 8 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
13	***1222**	Pérez Alonso, Luis Miguel	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Getxo	Bizkaia	480001	29

II. ERANSKINA

Jn./And.:

IFZ:

Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko funtzionarioa.

ADIERAZPENA

Martxoaren 21eko JUS/403/2019 Aginduaren bidez deitutako Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzeko hautaprobak gainditu zituzten hautagaiei (barne-sustapena) destinoa eman zitzaien 2020-12-22ko aginduaren bidez. Bada, agindu horren bigarren puntuari ezartzen duenarekin bat etorritik, honen bidez adierazten dut **Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoan** gelditzea hautatzen dudala.

....., 2021ekoaren

Sinadura:

Bidaltzeko modua: Bete, sinatu eta eskaneatu eranskin hau eta bidali posta elektronikoz helbide honetara: concursos.admonjusticia@mjusticia.es. Gaiari idatzi: 1. abizena 2. abizena, Izena II. ERANSKINA